

José Antonio Nielfa

“La Otxoa” bere izen artiskoarekin ezagunagoa da.
Saltsa guztien perrexila, plazagizona, showmana...
Disko bat kaleratu berri du.

[irudia]



Bilboko ibaia / Urek kulunkatua, ur gainean labain eginez beste ertzero bidean, ortziko hodeien begiradapean abiatu da garraio ontzitxoa. Hauts mota bat gure planetako elementuen joan-etorri amaigabeen, unetxo bat gure bizitzen joan-etorrian.

Argazkia: Mikel Martinez

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzaria E.R.E.
HEBIBIDEA: Amesti 6, 4. solairua, 5. hellegia 48990 GETXO
aldizkari@euskalt.net / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37 Fax: 94 49 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Maitane Bursiko, Irizar Besoldé, Urzi Iglesias
ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Burro
INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Goika Vázquez
KOLABORATZAILAK: Bitor Egurrea, Esti Ezkerra, Jokin de Pedro, Itaso Asua, Gaizka Escudero, Xabi Bilbao, Unai Ekerriaga, Algotako Beroilari Eskola, Alaitze Kaminanga, Jari G. del Horno
ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza
PUBLIZITATEA: Goika Onate (94 491 13 37)
FILMAZIOA: ARGIA / INFRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zati, makinaz zehar informazioak kopiatu, baimen barik, erabateko galarazirik dago
© BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentzako TOPAGUNEko parte da

Aldizkari honek Bizara Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du
Ixasgane Etxea / Karitateak 1
TOPAGUNEA

GETXOKO UDALA
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala
Aldizkari honek Leioako Udako Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du
BERANGOKO Udala
Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

Erandioko Udala
Aldizkari honek Erandioko Udalen dirulaguntza jasotzen du
Bertsotz Euskara Elkarte
Aldizkari honek Erandioko Bertsotz Euskara Elkartearen laguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ALDIZKARIA jaso nahi duenak deitu baino (94 491 13 37) ez du egin behar.
Pozik onartzen ditugu zuen dirulaguntzak:
BBK 2095 0022 00 91 02483676

Mikel Martinez [flasha]
AZKEN INTSUMISOA
Urte askoan ohizko irudia izan da hau komunikabideetan; intsumiso baten atxiloketa agerraldi publiko baketsuan. Ehundaka gaztek ezagutu dituzte kartzela eta zigorrak armadan parte hartzeari uko egiteagatik, bakezaleak izateagatik. Derrigorrezko soldaduzka desagertzera doa orain. Argazkian, bere burua aurkeztu zuen azken intsumisoaren atxiloketa, Portugaletekoa bera.

[AZAROA]

Azaroa edo Hazila, baita Bizkai aldeko Zemendia ere, hile hau izendatzeko irudi beraren inguruan dabilta: hazia ereiteko sasoi: "Azaro, azaro, erein eta itxaro".
Bada, baina, azaroaren hasieran bertan esangura bereziko data bat: Domusantu eguna, hilen eguna: azaroak bat. Eta gai hori hizpide hartuta, ikus edo entzun ditzagun herriak esan izan dituenak denok iritsi eta igaro beharreko mugari horretaz, heriotzaz.
Denetariokoak ditugu:
—Ironiazkoak: "Hil eta gero, denak onak"; "Hilez gero, ez da medikurik behar"; "Gizonak hil egin behar du ona izateko".
—Heriotzari garrantzia kentzekoak: "Gu hil eta gero ere astoak errekarra joango dira"; "Hila lurpera eta biziak mahaira".
Bere soiltasunean sakona eta biribila deritzot hurrengoari: "Hil arte bizi", hau da, "Zelan edo halan aurrera egin behar" esan gura lukeena.
"Zer egingo dugu, ba? Hil arte bizi egin behar!" Eta, munduan zer dagoen ikusirik, zer behar dugu pozik egoteko? "Hil arteko bizi eta jan arteko ogia" Hori daukana ondo ei dago. Zeuk esango, irakurle, hori horrela den ala ez.
JOKIN DE PEDRO

San Jorge eta Herensugea




Liburuaren aurkezpen eguna: Iñaki Gaminde egilea -erdian bizarragaz- bere informanteak ingurututa (Argazkia, Asier Bastida)

Liburua "Leioa barbarik berba"
Leioako euskeraren "berbakere" jaso du Iñaki Gamindek liburu batean

Zer esan nahi du "luki" berbak? Eta "itxoso" k? Eta "iretargi" k? Euskarazko berbak dira, zalantza barik, baina gehienon hiztegiaren ez dute lekurik izaten. Gure inguruan belaunaldiz belaunadi erabili izan dira, baina hemen aipatzeko lekuri ez dugun arrazoi askorengatik ezezagunak, arraroak egiten zaizkigu euskaldun askori. Egoera honi buelta emoteko, altxor hau ezagutarazteko Iñaki Gaminde filologoak Leioako Udalaren enkarguz 4.500 sarrera dituen hiztegi antzeko bat osatu du Leioan erabiltzen diren euskarazko berbekin. Esan bezala, hiztegi bat da "Leioa barbarik berba" liburua. Berbok lau gai nagusitan banatu ditu egileak: gizakia eta bere premiak, ingurunea, gizakiaren jarduerak eta, azkenik, berbeta bera. Hitz bakoitzaren ondoan, euskaraz bere ordaina ikusi daiteke euskaraz

estandaragoan, eta gauza bera gertatzen da berbak kontestualizatzeko Gamindek jarri dituen testuekin. Hau guztia ez ezik, aditzen morfologia, bildutako narrazioak, esakunak eta kantuak be topa ditzake lan eder honetan irakurleak. Eta ez hori bakarrik, liburuarekin batera CDROMa banatzen da. Nahi duenak Leioako euskara entzun dezake.
Liburua "Euskararen herritik munduari begira" lemapean Leioako Euskara Zerbitzuak antolatu dituen jardunaldi bikainetan aurkeztu zen, bertan egilea liburuaren egiteko baliatu dituen informanteekin inguratuta egon zen (goiko argazkia). m
Liburua salgai dago inguruko liburutundetan. Eskaraek: 94 400 80 44
Leioako Euskara Zerbitzua





Leioaren 475. urteurrena

1526ko urriaren 31n Leioako San Juan elizak Erandiokoa izateari utzi zion. Segituan leioarrek elizate independentea osatu zuten eta Diego de Aretxabaleta aukeratu zuten alkate. Gizon hau herriaren ordezkaria izan zen Gernikako Batzar Nagusietan; Leioak 36. aulkia zeukan han. Leioa herri bezala jaioa zen. Harrezkero 475 urte igaro dira eta urteurren hori ospatzeko egitarau zabala antolatu du hango udalak urte osoan zehar. Egun handia urriaren 31 zen, baina eguraldi txarra zela eta ekitaldi nagusia (herriko kaleak zeharkatu zituen desfile ikusgarria) bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek. Biharamunean egin zen.

Argazkiak: Mikel Martinez



[photo-finhitz]

Argazkia: Mikel Martinez / Testua: Unai Elorriaga

Zazpietako autobusak



Autobusari itxarotea gauza konplikatu da, besterik dirudien arren. Gauza konplikatu da kontu ugari eduki behar direlako kontuan, hala nola, ordua, lekua, eguraldia edo mundu mailako ekonomia-sistema. Baina esandako horiek ez dira arrazoirik nagusienak. Autobusari itxarotea gauza konplikatu da geltokian gaudenean pentsatzeko joera daukagulako, joera guztien artean deserosoena eta antinaturalena, dudarik gabe. Pentsatzeak ez dio onik ekarri munduan inori; autobusari itxaroten diogunean, oster, pentsatu egiten dugu. Asko pentsatzen dugu, gainera, autobusari itxaroten diogunean, batez ere zazpietako autobusa zortziak hamar gutxiagotan ez bada oraindik etorri. Alde horretatik, beraz, oso arriskutsua da autobusari itxarotea.

Batzuek berrogei minutuak ematen dituzte autobusaren atzerapenari buruzko kontuak pentsatzen; beste batzuek, aldiz, Budapesten hildako atleta letoniarra erabiltzen dute buruan, eta abar.

Argazki honetan, hala ere, eskumako neska –ile horien guztien atzean neska bat baldin badago behintzat– ezin du pentsatu. Euriak, komuneko paperak desegiten dituen bezala, pentsamenduak ere desegiten ditu, eta autobusaren zain dagoen neska hori, une horretan, komuneko papera da, beste inor baino gehiago. Ileen artetik sartzen ari zaio euria, neuronetara heltzean ari da argazkia aterata dagoen unean eta, handik segundo gutxira,

atzazaleetatik irteten hasiko zaio. Ezkerrean, baina, emakume edadetuago bat dago; janzkera deportibo horren atzean emakume edadetuago bat baino ezin delako sartu. Seguru ez dakit baina esango nuke emakume horrek ez daukala burua guardasola bezain handia edo, beste modu batera esanda, guardasolaren azpian beste buru bat sar daitekeela, itomentsazio handirik gabe. Kontua da jendeak autostop egiten duen bezala, ederra litzatekeela aterki-stop egitea, eta are ederragoa, euritakoa eskuetan daramanak ez daukanari eskaintzea, “Estaziora noa ni, lagunduko zaitut Villamonteraino?” edo antzekoak, eta abar.

Baina, seguruenik, autobusari itxaroten dauden pertsona bi hauek hartuko duten autobusa ez da leku berera joango, autobus berbera hartu arren. Bata gaixorik dagoen izeko batengana eramango du autobusak eta bestea ingeles eskolara. Eta ziur egon ez daukatela zerikusirik Student's book batek eta izeko baten kamisoiak. Bitxiena da, ordea, gaztea doala izekoa bisitatzera eta ingelesa ikastera bestea.

Eta, bat-batean, hara non konturatzen garen atzeko etxeko bosgarren pisuan arropa utzi dutela eskegita, noiz eta euria bota ahala dagoen egun batean. Eta seguru nago semerik gazteenak judo-txapelketaren bat daukala arratsaldean. 4



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / ERROMO

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: Mikel Martinez



ALGORTA

dj.ak
antzerkia
erakusketak

k
r
i
m
e
a



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

María
Jesús

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

HARTU TXANDA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

[ohiturak]

A, a, a, ardo gorri nafarra...

Ardoa edatea jaiegunetako apartekoa izaten zen

Testua: Akaitze Kamiruaga

Ardoa egiten duten lurralde eta herrietan, Araban eta Nafarroako hegoaldean, orain gutxi amaitu dute mahats-bilketa. Aipatutako lurraldeetan betidanik edan izateko ardoak ia-ia egunero. Besteetan, ostera, Bizkaian eta Gipuzkoan, ardo erosi eta ekarri egin behar izaten zuten egurrezko upeletan, gurdien gainean, horregatik iturriko ura zen eguneroko bazkari arruntetan hartzen zen edari bakarra. Sagardoa etxean egiten zen herrietan, ura barik beratu edaten zuten, urtean zehar egindakoa amaitu arte. Ardoa jaiegunetako apartekoa izaten zen.

Ardorako dirurik egoten ez zenez hainbat herritan lanak ordaintzeko erabiltzen zen, horrela auzolanetan egindako beharren truke

udalak ardoa ematen zuen. Oraindik ere leku askotan festa eta erromeria berezietan parte hartzen dutenek ardoak doan izaten dute.


Mende hasieratik aurrera ardoaren kontsumoa zabaldu eta ohiko egin zen, beti ere gizonezkoentzat besterik ez baina; emakumezkoek eta gaztetxoek, osteran, urarekin nahastuta edan beharra zuten.

Gaur egun jakina da ardo delat Euskal Herri osoan edaririk zabalduena eta herrikoena. Exte barruan ez ezik, lagun taldeek eta kuadrilek txikiteoa edo poteoa deritzagun herriko tabernaz tabernako ibilbidea ere batik-bat ardo edanez egiten dute.

Dena delat, badakizue, ardoarekin afaltzen duenak, urarekin gosaltzen du; beraz, kontuz

“Ardoarekin afaltzen duenak, urarekin gosaltzen du”

[dokumentua]




ORDAIN AGIRI HAU 1938. urtekoa da, Areetan idatzia. José Mariscal Arana Getxoko semeari ezarritako isun batena da. Merez du irakurtzea, isunaren zergatia deskubritzeko.

Oharra. Zenbat izan daiteke gaur egun 1938ko 500 pta? Galdetu, ikertu eta bidali erantzuna.

Data aldaketa

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko Irakurzaleen Txokoak antolatu duen hitzaldia azaroaren 6rako iragarri zen. Agenda kontuengatik azaroaren 20ra atzeratu behar izan da. Idazleak Gorde nazazu lurpean liburua izango du hizpide.

- Hitzaldia
- Ramon Saizarbitoria
- Azaroak 20
- 19:30, Itxasgane Etxea (Karitatea 1 Algorta)



Inportaziozko zerbezarik onenak

Terraza zabala

basarte'na

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

SATISTEGI



C
A
F
F
E

ADITUAK GARA

PINTXO ETA
BOKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA
% 94 46019 69



BILBO MICRO

“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

KURKUDI
LIBURUDENDA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



ATOR

azkartasuna
kalitatea
prezioa

kamisetarik onenak
preziorik onenean!

zure kamiseta, publizitate artikulu eta fotokopia denda



Serigrafia eta transfer

Super prezioak!!!

LAGUN TALDEAK!!!

Kamisetak, Sudaderak, Poloak,
Prakak, Euritakoak....

zure markarik onenak sport wear-ean



ATOR

- Fotokopiak zuribeltzean
- Fotokopiak koloretan
- Enkoadernazioak, faszikulak
- Anplazio zein erreduzioak
- Plastifikazioak
- Inprentak, txartelak
- Papeleria
- Gomazko zigiluak

ALGORTA

Algortako etorb. 106
Tf.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62

BILBO (lantegia eta biltegia)

Moncada 9, 3.
Tf.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46
e-mail: atorfym@euskalnet.net

LEIOA

Sabino Arana etorb. 86
Tf.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

foto xabier

argazkiak



Doctor Landa z/g
Tfno. 94 676 03 09
SOPELA

Zurikaldai


JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñaze z/g • Tel. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

[literatura]

Nobela Lehorreko paterak Inmigranteen bizipenak amestutako lurraldean



Iñaki Frieraren laugarren nobela da Lehorreko Paterak. / Argazkia: Mikel Martínez

Haserraldi baten ondorioz erabaki zuen Iñaki Frierak (Barakaldo, 1962, Getxon bizi da) Lehorreko paterak (Susa, 2001) nobela idaztea. Beren bizia jokoan jarritz itsasartea pateraz zeharkatzera abiatzen ziren emigranteen egoera dramatikoak iruditu zaio beti, eta, horregatik, irainduta sentitzen da jendeak horren inguruan inolako errespeturik gabe hitz egiten duenean. Lehorreko paterak obraren irakurleak ez du heroirik edo maitagiririk aurkituko. Nobelako protagonistak, Frierak dedikatorian azaltzen duen bezala, lehorreko pateretan itotzen diren horiek dira.

Hurbileko kasurik ezagutzen ez zuela eta internetera jo zuen Frierak informazioa eskuratzeko. “Uda partean patera hitza jarri eta harrigarria da zenbat albiste eta testu azaltzen diren gaiari loturik”, dio Barakaldokoak. Hala ere, horrelako albisteak emateko orduan komunikabideek erabili ohi duten azalkeirik urrun, Lehorreko paterak obrak errealitatea bere gordintasunean islatzen du. “Azken finean, horixe zen nire helburua. Normalean erakusten den patera itsasoaren gainean dabil,

baina badago lehorreko patera bat ere. Nire ustez, hor badaude errealitate bi: itsasoan gertatzen dena eta lehorrekoa. Lehenengo gogorra da, baina bigarrena ere oso tragikoa eta gordina da. Azken hori da nobelan agertzen dena”.

Istorioko protagonista 17 urteko mutiko marokoar bat da. Jezabel arreba itsasartea zeharkatzera joan zenetik, Ahmedek ez du haren berririk eduki. Arreba bilatzeko asmoz, Ahmed penintsularantz abiatuko da, eta zurien lurraldeak noizbait amesturikoarekin zerikusirik ez duela ohartuko da. Mutikoa, baina, ez da bakarrik egongo, ondoan beti laguntzeko prest dagoen Maixabel edukiko baitu.

Lehorreko paterak Iñaki Frierak idatzi duen laugarren nobela da. Lehenago haur eta gazteei zuzenduriko hiru liburu atera

IRAKURZALEEN TXOKOA

- Hitzaldia: Iñaki Frierak
- Liburua: “Lehorreko paterak”
- Abenduak 12, asteazkena
- 19:30. Itxasgane Etxea (Karitatea 1, Algorta)

[sarea]

WWW.arabnet.com

Idris A. Erdiwah-en negozioetarako web gunea

Aspaldidanik arabiar ugari bizi da Uribe Kostan eta euskal kulturaren guztiz integratuta sentitzen dira. Kultur nahasketa honen adibide argi bat dugu Algortan: Idris A. Erdiwah. Nazioarteko Merkataritza eta Garraioen Teknikari honek web gunea bat egin du estatu arabiarretara esportatu edota inportatu nahi duten enpresek euren topagune birtuala izan dezaten. Orriaren izena www.arabnet.com dugu, eta atal bat euskaraz irakurtzeko aukera eskaintzen du.

Idrisen arabiar enpresentzako merkatuari buruzko ikertzaile eta kontsultari moduan lan egiten zuen, baina konturatu zen Internet oso bide eraginkorra izan zitekeela merkatuak dituen mugak desagertarazteko. Izan ere, bere web gunearen bidez arabiar estatuetara bere merkatua zabaldu nahi duen enpresa orok badu non bilatu eta ezagutzera eman. www.arabnet.com orriak egunero 800 erabiltzaile izan ohi ditu batezbeste eta gehien bat

arabiar estatuetako enpresak izan arren, espainiar estatutik kontsulta asko izaten ditu. Ezaguna zaigu gaur egungo teknologia berriek herrialde ezberdinen arteko merkatuak trabarik ez edukitzea ahalbideratzen saiatzen direla. Xede horrekin Idrisen web-orriak hainbat hizkuntzaren aukera eskaintzen du, eta haien artean euskaraz dago.

Gure herrian arabiar kultura bultzatzen duten hainbat erakunde zein elkarte daude, behar bezalako integrazioa bilatzeko asmotan. Ildo honetik, Idris Algortan bizi ez ezik bertokoa sentitzen da, bere esanetan “jatorri libiarra duen getxoetar euskal herritarra naiz, oso intergratua sentitzen naizelako eta asko maite dudalako Euskal Herria”. Hala ere, aitortzen du euskaraz oraindik ez duela ikasi: “Euskal kultura hobeto ulertzeko euskaraz ikasi nahi nuke, uste dudalako oso zaila dela kultura bat ulertzea berea dun hizkuntza jakin barik”. m

Idris A. Erdiwah jatorri libiarreko getxoetarra / Argazkia: Mikel Martínez



Euskal Herriko Idazleak

Bestelako gaiak
Drogak
Politika
Bidaia
Osasuna
Sexualitatea
Munduko literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

basurto
algorta S.L.
altzariak

telletxe 15, algorta


T: 460 71 62 - 460 42 44

CALENDOS RIKI

UMEAK -GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543 - AREETA

VILLABOTAS IATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA



Ibilaldia 2002 Getxon

1. Aerobic Maratoi arrakastatsua

Ekitaldi hau Bizarra Lepoan elkarteak azken bi urteotan aerobica euskaraz egiteko San Nikolas ikastolako gimnasioa erabiltzen duela aprobetxatuz, datorren urtean Getxon izango den Ibilaldia girotzeko egitarauaren parte da. 1. Aerobic Maratoia Euskaraz honetan 91 lagunek parte hartu zuten bi kategoriatan banatuta: profesionalak eta amateurak. Profesionalen atalean 8 lagunek parte hartu zuten bitartean, amateuretan 83 izan ziren izena eman zutenak, horietatik 58 getxoztarrak. 91 lagun hauek hiru ordutan jarri zituzten dantzan euren gorputzak, Nerea González, Mikel Gaiaga, Mari Jose Zelaia eta Noelia Goena trebatzaileek prestatutako koreografiak landuz.

Epaile lanetan ere aerobic kontuetan adituak diren beste lau lagun aritu ziren, Zalua Lekanda, Patrizia Elordui, Jaione Casi eta Naiara Etxeberria (Hasi Berriak telesailekoa). UKri adierazi ziotenez, parte hartzaileen maila ona zela-eta, irabazlea aukeratzeko orduan zailtasun handia izan bazuten ere, azkenean profesionalen atalean Amaia Arantzabal durangarra izendatu zuten irabazle. Amateuretan lehenengo saria Jasone Zendoia lekeitiarrarentzat izan zen, bigarrena Blanca Miguelez leiozarrarentzat eta hirugarrena beste leioaztar batentzat, Elizabete Jauregiarentzat hain zuzen. Lehenengo getxoztarraren saria, berriz, Bego Galdeanok jaso zuen merezimendu osoz.

Jende ugari inguratu zen Andra Mari kiroldegira ikuskizunaz gozatzera, eta beldurrik gabe esan dezakegu benetan gozatu zutela, hasieratik bukaerara arte harmailak jendez beteta egon ziren eta. Ondorioz, giro ezin hobea sortu zen, eta ikusleek etengabe animatu zituzten kirolariak. Hurrengoa aurtengoa bezain arrakastatsua izan dadila. m

Jende ugari bildu zen kiroldegira ikuskizunarekin gozatzera / M. Martínez



Mikel Martínez


Pepe Heredia gitarra doinuak

Diskoa kaleratu berri du

“Nace un nuevo día”, horixe da Pepe Heredia gitarra jole getxoztarrak plazaratu duen azkenengo diskoaren izena. Lan berri hau Juan Crisostomo Kamara Orkrestarekin batera egin du eta azkenengo bi urteetan argitaratu duen bigarren diskoa da. Aurrekoa, “Esto es cierto, no es un sueño”, 1999an atera zuen berak sortutako Rumba Norte musika taldearekin. Azken hauekin flamenkoa eta musika esperimentalak jotzen du.

Herediak berrogei bat urte daramatza gitarra jotzen eta denbora horretan 100 abesti baino gehiago konposatu ditu, gitarraren munduari buruzko liburu bi argitaratu eta bere akademia propioa sortu du Getxon. 1990ean Getxon ospatutako Ziklo Kross Munduko Txapelketaren himnoa konposatu zuen berak Espainako Txirrindularitza Federazioak eskatuta.

Familiatik datorkio bokazioa Pepe Herediari. Bere aitak ere gitarra klasikoa jotzen zuen eta berari ere txikitatik sartu zitzaion gorputzean jotzeko grina. Orain, berrogei urte geroago, gitarra jotzea hobby-a baino askoz gehiago bihurtu da berarentzat. Orainsu argitaratu duen disko berria, “Nace un Nuevo día”, honen proba da eta beste urrats garrantzitsu bat getxoztar honen ibilbidean. mEskeraek: 944 914 659



- Urte osoan zehar
- Astelehen, astearte eta ostegunetan
- 20:30etatik / 21:30etara
- San Nikolas Ikastolan
- Izena emateko: 94 491 43 57

Bizarra Lepoan
Euskara Elkartea

THE SECRET GARDEN





Kiromasajista: Ana M. Blanco Imatz / Esteticien: Susana Gragera

<p>SOLARIUM</p> <p>36 HODI EKOLOGIKO + AURPEGIRAKO 3 HIGIENE OSOA</p>	<p>MASAJEAK</p> <p>TRATAMENDUAK</p> <p>TERAPEUTIKOA-LASAIGARRIAK / ANTIZELULITUKOA-ERREAFIRMANTEA ERREFLEXOLOGIA / DRENAJE LINFATIKOA</p>	<p>Natura Bissé</p> <p>DIAMOND azalerako bitxia</p>
<p>–DEPILAZIO ZERA. Gorputz tenperatura</p> <p>–DEPILAZIO ELEKTRIKOA. Elektrologo diplomatua</p> <p>–DEPILAZIOA LASER</p> <p>–AURPEGIRAKO TRATAMENDUA</p> <p>–KUTISAREN GARBIKETAK</p> <p>–MIKROPIGMENTAZIOA ETA TATUAIA</p>	<p>–BEKAINENTZAKO TINTE ETA PERMANENTEA</p> <p>–MAKILAJEA (ETXEAN) eskatu ordua!</p> <p>–KOLOREZKO KOSMETIKA 120 m²-zuzerbitzura!</p> <p>–GIMNASIA PASIBOA</p> <p>–KONPLEMENTOIA</p>	<p>eta orain... <i>fisioterapeuta diplomatua...</i> traumatologia, kirol fisioterapia, erremautologikoa...</p>

Algortako etorbidea 106 • 94 460 62 01 • 48990 ALGORTA



Algortako lehengo geltokiaren ikuspegia barreretatik begiratuta



Erakusketa trenbideko oroitzapenak

Mikel Martinezek Bilbo-Plentzia trenbidean egindako argazkiak eta bildutako objektuak ikusgai egongo dira Algortako Satistegi tabernan abenduan zehar

Trena propulsio-sistema desberdina erabil dezakeen makina batek higiarazirik metalezko bi errail paraleloren gainean higitzen da. Trena makina higiarazle batek eta haren atzean ilara osatuz lotutako hainbat bagoik osatutako multzoa da. Lehen tren-makinak lurri-makinan oinarriturik zeuden; gaur egun, berriz, elektrizitatea da sistematik erabiliena.

Hori baino ez da trena jakintza entziklopedikoaren arabera. Baina trena hori baino askoz gehiago da, trenak magia berezia dauka; trenak herriak elkartzen ditu, elkarrekin abiatzen da jendea, nor ez da inoiz trenean maitemindu?... Hain da sugerentea trena, hain da literarioa... Magia honek betidanik erakarri izan du Mikel Martinez aldizkari honetako fotografiaburua. Mikel orain dela hamar urte hasi zen prentsa argazkigintzan desagertutako Egin egunkariaren

Uribealde gehiagarrian. Lan hura zela eta, trenari buruz hainbat argazki egin behar izan zituen. Eta horrela hasi zen Bilbo-Plentzia trenbideari buruzko bere argazki artxibo propioa osatzen. Gero bere kabuz jarraipena eman zion lan horri lehengo trena gaur eguneko Metroak ordezkatu duen arte. Baina Mikelek ez du bakarrik azken urte hauetako trenari buruzko jarraipen fotografikoa egin, gaiarekin lotutako objektuak ere biltzen aritu da, hala nola, dokumentuak, erabili izan diren tren txartelak, lehengo pikek erabiltzen zizuten txilibituak, tren zaharren egurrezko aulkiak... Horiek guztiak batu ditu. Bere bildumaren alerik interesgarrienek osatuko dute Algortako Satistegi tabernan paratuko duen erakusketa. m

Testua: Jokin Aspuru / Argazkiak: Mikel Martinez

Goian, Algortako tren geltokiko eraikin nagusiaren azken eguna.

Erdian, Aretako lehengo geltokia.

Behean, Aiboako geltokia txikitu zutenekoa.

Euskararen Astea Getxon

Azaroaren 25 eta abenduaren 6 bitartean "Euskararen astea" ospatuko da herrian. Udalak, herriko erakundeek eta taldeek elkarlanean egitarau oparoa osatu dute guztion gozamenerako.



Dibertitzeko aukera bat baino egongo da "Euskararen astean". Kasketa Kabereta taldeak "Neskapolitan" lana aurkeztuko du

Getxon abenduren 3ko data aukeratu zen gure hizkuntzaren eguna ospatzeko. Hau orain dela hiru urte izan zen eta harrezkero egun horren inguruan ekitaldi ugari antolatu izan dira. Aurten, Europako Hizkuntzen Urtea den honetan, umeez zein helduek kalitate handiko ikuskizun mordoa gozatzeko aukera izango dute, euskaraz, pertsonaia eta artista ezagunen eskutik. Umoreak leku berezia izango du asteotan; horregatik, denok dibertitu gaitzen, Umore jardunaldiak antolatu dira. Adibidez, Txan Mago ospetsuak magia eta umorea uztartzen duen bere azken lan erakargarria ekarriko du Getxora; Kike Amonarrizek, Asisko Urmenetak eta Antton Olariagak "Hitz aspertuan, euskaraz dibertitzeko manerak" ikuskizuna aurkeztuko dute; kabareta ere egongo da... Musikak bere lekua izango. Alde batetik, Trikitixa ezagutuz erakusketa gure herrira helduko

da, eta bestetik, kantaldi bi egongo dira: Erramun Martikorenarena bat eta bestea Bingen Mendizabalek eta Mikel Urdangarinek eskainiko dutena. Bertsolaritzari dagokionez, Panttolone band-ek Ai Martin! ikuskizuna eskainiko du. Umeak ere gogoan izan dituzte antolatzaileek. Gazteenak herri kiroletan eta baserrietako jokoetan trebatu ahal izango dira Algortako Geltoki plazan paratuko den jolas parkean, eta gainera Lagundu, arraina naiz film arrakastasua euskaraz ikusi ahal izango dute edota Poxpolo, Mokol eta Konpania pailazoekin barre egin.

Egitaru zabal eta aberats hau herriko erakunde eta taldeek elkarlanean osatu dute: Bizarra Lepoan, Algortako Bertsolari Eskola, Egizu, Euskal Kantu Txapelketa, Topagunea, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua eta Getxoko Kultur Etxea. m

Egitaraua

Azaroak 25 igandea

Kontzertua: Erramun Martikorena, Mixel Ducau eta Karlos Gimenez
"Sortu naiz" diskoaren aurkezpena. Teloneroak: euskal kantu txapelketatko finalistak. Andres Isasi Musika Eskola, 19.00. Sarrera: 400 pta.



Azaroak 27 asteartea
Umore jardunaldiak
Txan Magoa
The Piper,s Irish Pub, 20.00. Doan

Erakusketa

Trikitixa ezagutuz. Trikitixaren historia ikusi, entzun eta ikutu. Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eskutik.
Algortako Kultur Etxea

Azaroak 28 asteazkena

Umore jardunaldiak

Helduentzako umore saio: "Arrautza delikatuak" Hika Antzerki Taldea.
The Piper,s Irish Pub, 20.00. Doan.

Azaroak 29 osteguna

Ipuin kontalaria Koldo Amestoy, "Harriola Marriola" helduentzako ipuinak
Algortako Kultur Etxea, 20.00. Gonbidapenez.

Azaroak 30 ostirala

Bertsolaritza

Panttolone band-en eskutik "Ai Martin!" ikuskizuna.
Andres Isasi Musika Eskola, 20.00. Sarrera: 400 pta.

Abenduak 1 larunbata

Haur herri kirolak

Kulki taldearen eskutik, haurrentzako herri-kirola eta baserriko jokuetan parte hartzeko aukera, fanfarre baten animazioaz.
Geltoki plaza, Algorta. 12:00.



Kontzertua
"Bar Puerto" Iana. Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Asier Oleaga, Josu Izagirre, Aitor Rubio eta Josu Zabala.
Getxo Antzokia, 22:30. Sarrera: 1.000 pta.

Abenduak 4 asteartea

Umore jardunaldiak

Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta eta Antton Olariaga
"Hitz aspertuan, euskararekin dibertitzeko manerak".
Itxasgane Etxea, 20.00. Doan.

Abenduak 5 asteazkena

Umore jardunaldiak

Kasketa kabareta: "Neskapolitan"
The Piper,s Irish Pub, 20.00. Doan.

Abenduak 6 osteguna

Haur zinea:

"Lagundu, arraina naiz"
Getxo Antzokia. 12:00 / 17:00 / 19:00 Sarrera: 250 pta.

Abenduak 2 igandea

Poxpolo, Mokolo eta Konpania pailazoak.
Getxo Antzokia. 12.00 / 17.00. 250 pta.

euskararen aste

I

Iñaki Bitxitegia



OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Solidarioak munduan



Esther munduko bazter batetik bestera ibiltzen da lanean, azkeneko misioa Gujjerat-en (Indiako iparmendebaldeko estatua) izan du

Esther Goñi > Mugarik Gabeko Medikua (MGM-MSF) / Medikua / 33 urte / Erandiokoa

Hiru hilabete Indian: “Ez nuen hainbeste miseria espero”

Medikuntza fakultatean bukatu bezain pronto, Esther Goñik medikuntza tropikalean diplomatura atera zuen Amberesen eta ondoren Mugarik Gabeko Medikua erakundearen (MSF/MGM) hasi zen lanean. Badaramatza lau urte elkarte honetarako lan egiten eta ordutik hona leku askotan egon da: “Ikasle nintzenez bolondresa nintzen eta medikuntza karrera bukatu nuenean bi urte eman nituen Euskal Herrian lan egiten MGMekoekin. Gero Angolar joan nintzen eta medikua nintzen arren, beste hainbat gauza egin behar izan nituen. Handik Mozanbikera eta Mozanbiketetik Angolar bueltatu nintzen berriro ere, han jendea behar zutelako eta nik lekua ezagutzen nuen.

Handik Euskal Herrira etorri eta gero Guatemalan eman nuen beste urte eta erdi bat. Orain arte hau da gehien gustatu zaidan herrialdea. Lan handia egin behar genuen, baina jendearekiko harremanak ezin hobekak ziren eta ez zeuden beste leku askotan aurkitzen dituzun arazoak. Angolan adibidez, guztiz ezinezkoa da bakarrik menditik ibilaldirik egitea pertsonen kontrako mina ezkutuak daudelako”.

Estherrek ezagutu duen azkenengo herrialdea India izan da. Esperientzia zabala izan arren, han aurkitu zuenak harritu egin zuen: “Ez nuen hainbeste miseria espero; pobrezia, gaixotasunak... Legenarra, tuberkulosia, diabetesa... European ia ahaztuta ditugun

gaixotasunak han oso arruntak dira”. Esther Gujjerat-en egon zen, Indiako iparmendebaldean dagoen estatu batean. Han denetarik egiteko aukera eduki zuen; umeak jaiotzen lagundu, tuberkulosiak zaindu, botikak antolatu... “Ez zen lan erraza izan. Maiatzean 48 gradutan geunden eta urtarrilean gertatutako azkenengo lurrikararen ondorioak nabarmenak ziren oraindik”. Batzuetan gogorra egiten zaion arren (“Inoiz Euskal Herriko beste kooperanteengana jo dut mus partida bat-edo jokatzeke, apur bat deskonektatzeko...”) Estherrek ez du bere lana uzteko asmorik. “Datorren astean Angolar joango naiz berriro ere eta momentuz hori da nahi dudana; ez dut hemen lanean geratzeko inolako asmorik oporretan ez bada behintzat”. 1

Agian guk behar izan genuenean jaso genuelako, elkartasuna oso hedatua dago gurean. Euskaldun asko eta asko munduan zehar dabiltza haien elkartasuna eskaintzen. Uribe Kostako lagun batzuekin berba egiteko aukera izan dugu, beraien esperientziak kontatu dizkigute.

Testuak: Javi G. del Herrero

Ainara Oiarbide > / Ikaslea / 21 urte / Algortakoa

Bi hilabete Hondurasen: “Lurrean egiten dute lo”

Bere ametsa Nikaraguara joatea zen. Ez zuen berak bakarrik joan nahi, baina elkarte ezberdinekin eta Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin ondoren Hondurasera joatea erabaki zuen..., eta bere kabuz gainera. “GKEk eta elkarte ezberdinek gauza berbera eskaintzen zuten; hiru aste. Eta Eusko Jaurlaritzaren eskaintzan sartzeko hiru hilabete eman behar genituen han. Ni neu hile pare baten baino ezin nintzen egon ikasketak zirela eta. Gainera, lehenengo aldia zenez, hiru hilabete denbora asko zela iruditu zitzaidan. Beraz, bakarrik joatea erabaki nuen. Hondurasen daukadan lagun batekin hitz egin eta hara joan nintzen”. Hondurasen Ainara Tegulcigalpa hiriburuan egon zen. Bera egon zen etxean honduratar bi eta Granadako beste lagun bi bizi ziren. “Zorte handia eduki nuen. Nire etxea handi xamarra zen eta, hango txabolo gehienek aldean, luxuzkoa. Bizi kalitatea oso baxua zen. Ni, adibidez, errolda egiten ibili nintzen eta denetarik ikusteko aukera eduki nuen. Bazeuden nire egongela baino txikiagoak ziren txabolak; horietan hogei pertsona bizi ziren batera; batzuek lurrean egiten zuten lo, beste batzuek hamaketan. Harrigarria, benetan. Eta, noski, etxe askotan ez zuten ezta argi indarririk ere”. Badago Ainarari gustatu ez zitzaion zerbaite. “Gu oso ondo konpontzen ginen jendearekin eta gehienak jatorrak ziren arren berekoiak, oso kontsumistak ziren, eta dirurik eduki ez arren oso alferrak ziren”. Errolda egiteaz gain, Ainarak beste lan batzuk ere egin zituen. “Hiru eta zazpi urte bitarteko umei eskola ematen nien. Oso oroitzen ona daukat”. Hain ona ezen berriro joatea erabakia baitu. “Oso esperientzia positiboa izan da; beste kultura ezberdin bat ezagutu dut eta merezi duela ziurtatu diezazuket, inolako zalantzarik gabe. Datorren udan, karrera bukatu bezain pronto bueltatuko naiz, oraingoan Nikaraguara eta bederatzi hilabeterako”. 1

Erroldak egiten eta haurrei eskolak ematen egon da Ainara Tegulcigalpan



Bost urte Guatemalan: “Hemendik ere asko lagundu daiteke”



Gerra luze baten ondoren, guatemalatar asko atzeritik itzuli ziren. Haiei laguntzen (etxeak eraikitzen, kokalekuak aukeratzeko...) ibili da Gorka

Las Palmasen jaio zen Gorka Ramírez, baina aspalditik bizi da Euskal Herrian. Hori esaterik baldin badago; izan ere, azkenengo bost urteak Guatemalan eman ditu. 1995ean, zuzenbide ikasketak bukatu ondoren, Hirugarren Mundua eta Bakea Gobernu Kanpoko Erakundearen sartu zen, praktika batzuk egin zituen eta hara abiatu zen. “Joan baino lehen egiten dugun prestakuntza ikastaroa behar-beharrezkoa da hango errealitatea ezagutu ahal izateko. Nik Guatemalara heldu nintzen banekien zer aurkituko nuen eta zer-nolako egoeran zeuden hango biztanleak. 1996ko urtarilean heldu nintzen, bake hitzarmena sinatu zuten unean, 36 urteko guda odoltsua jasan ondoren”. Gorkak berreraikuntza lanak egin zituen Guatemalan. “Guda zela eta guatemalatar askok eta askok Mexikora ihes egin zuten eta gatazka bukatu zenean itzultzen hasi ziren. Buelta, noski, ez zen erraza izan eta guk horretan ere laguntzen genien; janaria eramaten, kokalekuak eta etxeak eraikitzen, beste batzuk berreraikitzen...; lan handia dago oraindik egiteko”.

Jendearekiko harremanak onak izan ziren. “Jende gehienak gure lana ulertzen zuen; bazekiten ez zela karitatea baizik eta laguntza eta esperientzien trukaketa”.



Guatemalan Gorkak eta Hirugarren Mundua eta Bakea elkarteak bazituzten harremanak beste GKE batzuekin; “Hori oso garrantzitsua da. Horretarako dago Nazioarteko GKEen Foroa delakoa; ekintzak koordinatzeko eta ahaleginak gehitzeko”.

Gorkak ere bere esperientziari positiboa iritzi dion arren eta, nahiz eta Hirugarren Mundua eta Bakean jarraitzen duen, orain-

goz ez dauka Guatemalara bueltatzeko asmorik. “Lagun handiak egin nituen han eta seguru asko inoiz bueltatuko naiz, baina oraindik ez. Eta egunen batean Hegoamerikako beste herrialdeetara ere joango naiz, baina oraingoz Euskal Herrian jarraituko dut. Hemendik ere lan handia egin daiteke eta hangoei laguntzeko, eta ni orain horretan nabil”.



Andere legena edo lepra duten gaixoak zaintzen egon da Kameruneko hiriburu ekonomikoan, Doualan

Hiru hilabete Kamerunen: “Han ikusi nuenak harritu ninduen”

Medikuntza ikasten dabil Basurton Andere Frías sopoloztarra eta 21 urte baino ez dituen arren karrera bukatzean dago. Frantzez badaki eta ikasketa hauek ondo baino hobeto etorri zitzaizkion Eusko Jaurlaritzaren kooperazio programa batean izena eman zuenean. Guztira aukeratutako 100 pertsonak Kamerunera hiru hilabetez joateko aukera izan zuten. “Ni legena edo lepra duten lagunentzako zentro batean ibili nintzen lanean “Procarde” Gobernu Kanpoko Erakundearekin eta esperientzia oso positiboa izan da. Praktika ugari egin nituen; kontsultak, era guztietako sendaketak... Askok ikasi dut. Giza mailan ere esperientzia oso ona izan da. Jendea oso jatorra da han. Oso ondo hartu gintuzten”. Andere laguntzeko gogoz joan zen eta bere asmoak betetzeko aukera eduki zuen, Kamerunen pobrezia nabarmena baita. “Joan nintzenean ez nekien zer aurkituko nuen.

Ez nuen gauza handirik espero, baina hala ere kaleetatik ikusi nuenak harritu ninduen. Ni Douala-n egon nintzen; Kameruneko hiriburu ekonomikoan. Hala ere, hiria oso kutrea zen; leku gehienetan ez zeukaten argi indarrik, kaleak zabortege hutsak ziren eta arriskutsuak gainera, ustelkeria nagusi da estamentu guztietan eta jendeak normala balitz bezala onartzen du hori. Jende gehienak egunean behin elikagai eskas batzuk baino ez zituen jaten, eta sarritan, ezta hori ere. Nik ez nuen desnutrizio kasurik zaindu baina gugana etortzen ziren asko eta asko gose ziren”. Gaixoen egoera ez zen hobea. “Ahal genuena egiten genuen baina ez genuen mozkinik, ia ez zegoen botikarik eta lasaigarri gogorra aspirina zen. Han ikusi nuen zein garrantzitsua izan daitekeen gure laguntza haientzat”. Egoera larri honek, ostera, ez dio Andereri hirugarren mundua den horretara berriz joateko gogo-




rik kendu; kontrakoa gertatu zaio. “Buelatzeko irrikitan nago. Posible balitz Kamerunera joango nintzateke atzera. Bestela, beste norabait. Ikasketak bukatu bezain





Alfonso Momeñe



Estatu Batuetan zortzi urte eman zituen Alfonso Momeñek (Bilbo, 1968) fotografia eta zinema ikasketak egiten. Han argazkilari lanetan hasi zen eta bestekak beste, The Walt Disney Company eta The Kodak Eastman Company izan ziren bere bezeroak. Alfred Stieglitz, Cartier Bresson edota Avedon argazkilari handien eraginpean gaur egun moda eta erretratua lantzen ditu bere estudioan. 1999an Algotan Nadar fotografia eskola





[berbetan]

LaOtxoa

“Musika baino gehiago naiz, espektakulua naiz”

Bilboko gauen adierazgarri goren dugu Jose Antonio Nielfa “La Otxoa”. Artista izateaz gain hamaika istorio kontatzeko ditu. Bere disko berriaren (*Porque me lo pide el cuerpo*) aurkezpena dela eta, Larrabasterran bizi den mito honengana hurbildu gara. Itxura baino gehiago dela argi utzi digu.

Testua: x / Argazkia: Mikel Martinez

—Zure disko berria kaleratzeaz dago. Nola deskribatuko zenue? Zein berritasun agertzen da?

—Osotasun handiko diskoa da. Alde batek, betiko koplak eta boleroak sartzeaz gain rantsak eta Karibeko erritmoak disko-musikarekin nahastu ditut. Beraz, oso kanta modernoak eta zoragarriak dira. Beste alde batek, diskoak dituen hamahiru abestietatik zazpi Moncho Borrajok eginak dira eta hau da diskoa berari eskainita egotearen arrazoia, lagun handia izateaz gain. Esan daiteke lan itzela dela. Gainera, emakumei gustatzen zaien pilleria ez da galtzen leteretan, beti gustatu izan zait zentzu bikoitzekin jolastea, diskoaren izenburutik hasita: “Porque me lo pide el cuerpo”.

—Zer eskatzen dizu gorputzak?

—Momentu bakoitzean nahi dudana, komertziala ez bada ere; nahiz eta gero komertziala bilakatu.

—Jendea zure leteretan intentzio bikoitz horren bila ibiltzen al da?

—Ni musika baino gehiago naiz, espektakulua naiz. Artista naiz, aldagelan sartu orduko artista izan beharra daukat makilatzeke, arropa aukeratzeko... Ateratzen naizen momentutik publikoarekin hitz egiten dut, istorioak kontatu...; hau da, showmana naiz, baina abestu egiten dut. Horregatik nire abestiek entretengarriak izan behar dute.

—Zer etorkizun opa diozu diskoari?

—Ilusioz beterik nago, uste dudalako ondo promozionatzeko gero etorkizun handia izango duela. Badakizue hemen abesti aditua, abesti txalotua. Bizkaian edozein tokitan entzungo dela ziur nago, beti izan baitut arrakasta handia eta nik neure partetik dena jarriko dut. Baina estatu mailan gauzak ezberdinak dira, baldintza asko sartzen dira jokoan, hau negozio bat delako. Laster diskoaren aurkezpena izango da Bilbon azaroaren 13an nire tabernan, eta 20an Madrilen.

—Beraz, zuretzat musika negozioa baino ez da?

—Musika nire bizitza da, eta negozio bezala inoiz hartu ez badut ere, azken finean negozioa da. Ez dut autoerrealizatzeko egiten. Bizi maila hobea eta ziurra eskuratzeko modu bezala ikusten dut, nire taberna bezala.

—Gaur egun negozio arrakastatsua bezala ikusten duzu, baina nolakoak izan ziren has-tapenak?

—Betidanik gustatu izan zait abestea, baina uste nuen arrakasta nigandik oso urrun zegoela, hain zuzen ere, Madrilen. Horregatik saiatu nintzen Madrilen, Bartzelonan eta Malagan. Arrakasta eskaini zidan abestia baino lehen (“Libérate”, alegia) hamar urte emanak nituen orkestretan lan egiten. Pentsa! Aurrerapausorik ez eta amore eman nuen. Baina behin kazetari batek emakumez jantzi eta talde feminista baten abestia kantatzeko eskatu zidan; hortik aurrera ospetsu egin nintzen. Gogoratzen dut emakumez jantzi nintzen lehenengo egun hura: luma bat hartu nuen, gona bat jantzi eta Atila bezala, aurkitu nituen kolore guztiakin margoztu nintzen. Duela hogeita bost urtetik hona batezbeste, urtero 90 bat emanaldi egin ditut.


—Eta gaur eguneko musikari buruz, zer iritzi duzu?

—Denetarik dago. Orain inork zerbaitekin arrakasta lortzen badu atzetik beste guztiak formula berbera erabiltzen saiatzen dira. Lehen batez ere, abestu egin behar genuen, ondo abesten ez bazuen batek ez zuen zer eginik; orain aldiz, laborategiko musika da nagusi eta gero publikoaren aurrean artista

“José Antonio oso pertsona lotsatia da eta ez dauka La Otxoarekin zerikusirik. Baina pertsonaia honen bidez munduan dauden injustiziak aldarrikatzeko aukera izan dut”

diskografia

- Libérate (1981)
- Todas al futbol (1983)
- Bilbao-Bilbao (1984)
- Genio y figura (1990)
- Quiero ser de la Jet Set (1992)
- Vivir de noche (1995)
- Sexual y autoritaria (1996)
- Glamour (1997)
- Porque me lo pide el cuerpo (2001)



100 haur kanta

Piter Ansorenak aukeraturiko haur kanta zahar eta berriak

Takelo, Pirritx eta Porrotx

Kixki, Mixki, Kaxkamelon

Tximeleta Mendian

Katuen Testamentua

Ran roberran

Almona Josefina

Txirula Mirula

Betizu

Pintto Pintto

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Plisti plaut

Gora, gora

Tele-kantak

Urriaren 27tik aurrera

larunbatero eta igandero

+ 595 pezeta
24 libera

8 CDz osaturiko bilduma

Egunkaria

askok ez daki bere lana ondo burutzen. Izan ere, niri gustatzen zaidan musikak fundamentuzkoa izan behar du: letra eta melodia edukitzeaz gain, zerbait komunikatu behar du eta ez gaur egun inkomunikatzen duen bakalaoaren modukoa.

—Jakinminagatik, nondik datorkizu La Otxoa izen artistikoa?

—Hamaika urte nituenetik beti taberna baten barraren atzean egon izan naiz lanean. Lan egiten nuen taberna baten izena Otxoa zen eta jakingo duzue, gayen munduan izenei aurretik “la” jartzeko ohitura dago. Orduan La Otxoa goitizena geratu zitzaidan. Ezagun egin nintzenez, ez nuen izen artistikorik asmatu behar izan; banuen neurera, La Otxoa, alegia.

—Zein alde dago La Otxoa pertsonaia eta José Antonio pertsonaren artean?

—José Antonio oso pertsona lotsatia da eta ez dauka La Otxoarekin zerikusirik. Baina pertsonaia honen bidez munduan dauden injustiziak aldarrikatzeko aukera izan dut, eta La Otxoak esaten duen moduan esateko, auzoko betiko emakume bat bailitzan. Honengatik uste dut emakumeek hainbeste maite nautela eta nirekin identifikatzen direla. Modu honetan José Antoniok ezin esango lukeena La Otxoak esan dezake arazorik gabe, “farandulako” pertsonaia delako. Begiko marra pintatzen dudan momentutik

“Begiko marra pintatzen dudan momentutik barrutik aldaketa somatzen dut: guztiz groteskoa, probokatzailer eta tenperamental bilakatzen naiz”

barrutik aldaketa bat somatzen dut: guztiz groteskoa, probokatzailer eta tenperatala bilakatzen naiz.

—Larrabasterran bizi zara, zer moduz Uribe Kostan bizitzea?

—Uribe Kosta hemen dugun lekurik ederrera da, hemen bizitzea zoragarria da. Nola esango nuke... Bilbotik oso gertu nago, baina aldi berean oso urrun. Bakarrik sentitzen naizen egun horietan autoa hartu eta hogei minututan Bilbon nago. Hemengo jendeak betikoa izaten jarraitzen du, oso pertsona onak eta prestuak dira. Uste dut bizitzeko leku perfektua dela. Baina gauza batzuk oso tradizional izaten jarraitzen dute.

—Zeri buruz ari zara?

—Nudismoaz. Orain dela hogei urte baino gehiago polizia lanjak botatzen genizkien hondartzan biluzik egoten uzten ez zigutelako. Ikus dezazuen gauzak bueltan etortzen direla, historiak hamaika buelta ematen ditu!

—Nolakoa da zure eguneroko bizitza?

—Egun guztiak ezberdinak dira, ez daukat

egunerokotasunik. Gainera, ezin dut geldirik egon, beti hemendik hara, handik hara... Ezer egitekorik ez dudanean tenisean aritzen naiz, nire kirol gustukoena da, futbola kenduta. Gainera, kirola egitea oso ondo datorkit..., lineari eusteko. Horrez gain, Athletic nire pasioa da.

—Paperak aldatuz, zein galdera egingo zenioke La Otxoari?

—Inoiz egingo ez nituen galderak hauek dira: non jaio zara, zenbat urte dituzu, noiz hasi zinen abesten... Zein galdera egingo nuke? Oso zaila da. Agian, hanketako ilea ikusi ez dadin zenbat media jartzen ditudan. Izan ere, oso truko ona da, hartu nota: haragi kolorezko media sendoak, gero media normalak eta azkenik sarea. Hanka zoraga-



“Porque me lo pide el cuerpo” diskoa salgai egongo da azaroaren 13tik aurrera

UK

ALDIZKARIA
jaso nahi duenak
deitu baino (94
491 13 37) ez du
egin behar.

Pozik onartzen
ditugu zuen dirulaguntzak:
BBK 2095 0022.00
91 02483676

VASA
20º ANIVERSARIO
URTEURRENA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Villa de Plentzia, 18 behea
48930 Las Arenas | Getxo
Bizkaia

Tel.: 94 464 51 66

Fax: 94 480 54 70

e-mail: vasa@euskalnet.net

Gaueko beharginak

Eguzkia hodeiertzearen atzean ezkututzen denean eta gau ilunak gure herrialdea estaltzen duenean, jendea lotan dagoen bitartean eta isiltasuna eta bakardadea eskutik ateratzen direnean, nonbait munduak bueltaka eta bueltaka darrai, gehienok lotan gauden bitartean batzuek lan egiten jarraitzen dutelako. Askotan ez ditugu ikusten eta batzuetan ezta ezagutu ere, baina haiei esker gure bizitza askoz erosoagoa da.

Testuak: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martinez



Gabi Ezkerra
Prentsa saltzailea

Gabi Ezkerrak bizitza osoa darama egunkariak saltzen. Bere aitite 1927an hasi zen mahai bakar batekin kalean egunkariak saltzen eta etxex etxe txirrindulaz banatzen. Gero gurasoek lanbideari eutsi zioten eta 1980an "Egunkariak" denda zabaldu zuten, 1992tik Gabi da dendaren jabea. Urte asko, beraz, egunkariak banatzen gogor xamar egin daitekeen ordutegi bat jarraitzen. **Ordutegia:** "3:30etan ateratzen naiz etxetik eta lauretan hasten naiz egunkariak banatzen bederatzi eta erdiak arte. Gero dendan jarraitzen dut saltzen". **Ordutegiak daukan hobereena:** "Inolako zalan-tzarik gabe lasaitasuna, ordu horietan ez baitago ez trafikorik, ez aparkatzeko arazorik ezta iskanbilarik ere. Atsegina egiten da lana, benetan". **Ordutegiak daukan txarrena:** "Urte osoan egun librerik ez edukitzea. Nik, adibidez, inoiz ez dut oporrik eduki eta, egia esan, ez dut horien faltarik sentitzen, baina egunero lan egitea, jaiegunik gabe, nekagarria egiten da askotan". **Esaldia:** "Negozio familiarra da hau, betidanik egin baitugu gauza bera. Lehen aititek txirrindulaz banatzen zituen eta orain nik furgonetaz, baina lan berbera egiten dugu; egunkariak etxetara eraman. Ez da oso errentagarria baina ditugun bezeroak finkoak dira". m

4:30etan egunkarien lehengo aleak heltzen dira Algortara

Goizeko bostetan hasten da Marcelino ogia prestatzen




Marcelino López
Okina

Marcelino López (Marcel edo Otaola lagunentzako) okina da Algortan dagoen "Okinder" okindegian. Hamalau urte zituela "Harino panadera"n hasi zen. Gero fundizio batean eman zituen beste 13 urte eta itxi zutenean "Okinder"en hasi zen. Ordutik bederatzi urte igaro dira eta gaur egun dendako arduraduna da. Hala ere, Marcel erretiratzeko gogoz dabil. **Ordutegia:** Goizeko bostetatik eguerdiko ordu batak arte. **Ordutegiak daukan hobereena:** "Ordutegia bera; goiz xamar hasten garen arren ordu batak aldera ateratzen gara. Ia egun osoa dugu aurretik nahi duguna egiteko". **Ordutegiak daukan txarrena:** "Lan handia dagoela eta nekagarria dela; oreka egin, oratu, labean sartu...". **Esaldia:** "Gauzak asko aldatu dira lanbide honetan hasi nintzenetik. Lehen gaueko ordu batetan hasten ginen ogia lehenengo orduan eduki ahal izateko. Gaur egun leku batzuetan oraindik egiten duten arren, gu geu adibidez bostetan hasten gara". m

Julio Molano
Arrain-saltzailea

Julio Molanok 31 urte daramatza arraina saltzen, beti Algortako azokan. Honi esker bere arraindegia, "Molano arraindegia", herriko ezagunenetariko bat da. Baina gaur egun kompetentzia izugarria da eta horregatik Juliok goiz baino goizago altxatu behar du MercaBilbaora joan eta arrain freskoena ekarri ahal izateko. **Ordutegia:** "Egunero goizeko 4:30etan MercaBilbaon egon behar dugu. Bostetan irekitzen dute, baina zenbat eta lehenago joan, jenero hobea lor daiteke. Gero eguerdiko ordu biak arte arraindegian lanean jarraitzen dugu, arratsaldez be irekitzen dugu. **Ordutegiak daukan hobereena:** "Asteburuak libre ditugula eta etxean arrain freskoa dagoela beti". **Ordutegiak daukan txarrena:** "Ordu asko direla eta nekagarria izaten da askotan". **Esaldia:** "Lanbide honetan hasi nintzenean, orain dela 31 urte, arraindegi bi baino ez zeuden Getxon; orain hirurogeita hamar baino gehiago daude, baina nik hor jarraitzen dut betiko lekuan jo eta ke. Ez dut sekula bajarik hartu". m

Goizeko 5:30ak, Julio Mercabilbaon bere apalak hornitzeko jenerorik onena aukeratzen



Borjan Rasines
Tabernaria

Borja Rasinesek, getxoxtarra izan arren Sopelako "Laiak" tabernan lan egiten du. Bera jabeetako bat da eta orain dela bi urte hasi zen tabernari lanetan, bere lagunekin batera "Laiak"eraikitzea erabaki zutenean. **Ordutegia:** (Errelebotan) Goizez, 8etatik 4rak arte eta arratsalde-gauz, 6etatik goizeko 3:30ak arte. **Ordutegiak daukan hobereena:** "Gauz zaudenean egun osoa aprobetxatu dezaket". **Ordutegiak daukan txarrena:** "Hurrengo egunean goizean zaila egiten zait altxatzea beti neke-neke eginda egoten naizelako". **Esaldia:** "Lan hau gustukoa dut eta gaueko ordutegia ez dago hain txarto. Hemen nagoenetik jende asko ezagutu dut eta gauza bat konprobatu dut; zenbat eta beranduago, jendea orduan eta jatorragoa izaten da zerbitzariekin. Agian edanda daudelako edota gauak bezeroak animatzen dituelako; ez dakit, baina horrela da". m

Goizeko 3:30ak aldera amaitzen du lana Borjak

Andoni París
Ur Partzuergoan beharrean

Andoni París sopelostarra da, sei urte daramatza Bentaltan, Ur Partzuergoan lan egiten. Telemando baten arduraduna da. Bere lanpostutik Bilbo Handiko edateko uraren banaketa sarea kontrolatzen du; ur-etorria, presioak, urontzien beremailak,... Andoniren esanetan, lana ez dago txarto, baina bera eta bere lankideek gauz ere lan egin behar dute errelebotan lan egiten bait dute. **Ordutegia:** goizeko 6etatik arratsaldeko ordu biak arte; arratsaldeko ordu 2etatik gaueko 10ak arte eta gaueko 10etatik goizeko 6ak arte. **Ordutegiak daukan hobereena:** "Ordutegia bera, denbora libre asko daukat. Egun libreak ditugunean bost izaten dira,opor txikiak dirudite". **Ordutegiak daukan txarrena:** "Zalantzarik gabe asteburuetan lan egitea. Horrela denean ez dago jairik, ez parrandarik... Batzutan gogorra egiten da". **Esaldia:** "Ondo eramaten dut. Errelebotan zabiltzanean, azkenean ohitutzen da bat eta ez da egiten jende gehienak pentsatzen duen bezain gogorra. Niri adibidez askoz nekagarriagoa iruditzen zait goizeko txanda, seiretan hasten naizelako; horrek bostetan altzatu behar naizela esan nahi du eta lugureak ez du barkatzen". m



Errelebotan egiten du lan Andoni Parisek, goizez arratsaldez, zein gauz

Urrikougaritasuna

Egia esateko, aurtengo urria ez da batere urri gertatu ALBEk antolatutako bertso ekitaldiei dagokienean. Uribertsoan barrena izeneko atal honetan, urrian egindako ekitaldi bi ekarriko ditugu hizpidera: Algortako bertsozotrama eta Leioako bertso jaialdia. Horrez gain, azaroko ekitaldiak ere aipatuko ditugu, aurtengo azaroa urria bezain emankor suertatuko delakoan.

Testuak eta argazkiak: Algortako Bertsolari Eskola



Algortako bertsozotrama Urriaren 18an, 20:00etan eta Aldai Patronatuaren kultur gunean, bertsozotrama bat zer den behar bezala ulertzeko argibiderik onena eskaini zitzaigun. Igor Elortza, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio bertsolari karismatikoa eta zailduak maisuki garatu zuten bertsozotramaren aitatzat jo daitekeen Josu Goikoetxeak jarritako gidoi erakargarria. Orain dela 200 urteko Getxo ekarri zuten bertsozotrama Josu Goikoetxea tramagileak eta lau bertsolariak buru belarri murgildu ziren orduko pertsonaia, giro eta egoeretan. Aldai Patronatura hurbildu ziren 80 bat gazteek arretaz jarraitu zuten ordu eta erdi iraun zuen bertso jolasa, bai eta barrez zein txalo berok eskertu tramagilearen eta bertsolarien ateraldi originalak.

Ez da hau lehenengo aldia Algortan bertsozotrama bat egiten dena. Orain dela pare bat urte beste bat egin genuen Zabala ikastetxearekin. Orduko hartan ere Josu Goikoetxea izan genuen tramagile, eta bertso lanean Jon Maia, Oihane Enbeita, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze aritu ziren. Berrehun bat lagun bildu ziren eta,

egia esan, trama bikaina osatu zuten lehenengo bertsozotrama hartan ere. Orduko arrakasta ikusita, iaz beste trama bat aurreikusi genuen urte osoko egitasmoan, baina gero, egun berean greba orokorra deitu zela eta, bertan behera uztea erabaki genuen. Beste alde batetik, gogora ekarri nahi genuen bertsozotrama modalitate Josu Goikoetxeak, Igor Elortzak eta Jon Maia asmatu zutela orain dela 5 bat urte Gasteizen, pisu berean bizi zirela. Beraz, Gasteizko tabernetan-eta eman zituen lehenengo pausoak gaur egun hainbeste zabaldu den bertsozotrama mota honek.

Taberna giroan ere saiatuta gaude bertsozotramaren modalitatean, Margot taberna zen hartan (egun Galtzagorri da), hain zuzen ere, zenbait bertsolari bikoteri traman jarduteko aukera emanez. Margotetik paseak dira, besteak beste, Aritz Lopategi, Ibon Iza, Anjel Mari Peñagarikano, Arkaitz Estiballes, Leire Bilbao, Iñaki Murua, Iratxe Ibarra, Fredi Paia...

Kontuak kontu, gu geu jabetuta gaude bertsozotramaren ederraz, eta bai baitakigu zuek ere ez diozuela muzin egingo halako plater gozoari, urtero-urtero daukagu eskaintzeko asmoa.

Leioako jaialdia Bertso jaialdia 4 bertsolari baino gehiagoko bertsozotramari deitu ohi zaio. Orain dela 8 bat urte puri-purian egon zen ekitaldi mota hori. Aspaldion hainbeste bertso jaialdi egiten ez bada ere, begien bistakoa da 6 bertsolari oneko talde batek sortzen duen ikusmira. Urriaren 19an izan genuen bertso jaialdiaren xarmaz gozatzeko aukera parebakoa, Leioako bulebarrean bertako Udalak ezarri zuen karpapean. 20:00etarako jende ugari zebilen karpa horren inguruan. 20:15etara-

ko oholza gainean ziren 6 bertsolariak: Anthoni Egaña, Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Oihane Enbeita, Igor Elortza eta Jon Maia. Xabier Paia algortar gazteak egin zituen gaitzartzaile lanak, baita ondo egin ere: ez zion atseden luzerik eman bertsolari seikoteari. Gainera, Xabierrek gai fresko eta original asko jarri zituen bere-bere duen estilo airoso eta zirrikorrean. Leioako jaialdira hurbildu ziren bertsozotramaren txalo berok eskertu zuten 6 bertsolarien eta gaitzartzailearen ahalgina. Anekdotak bezala esan daiteke nahikoa barregarri suertatu zela 6 bertsolari 7 puntuko neurrian egin zuten puntukako jarduna. Lehenengo buelta astiroegi egin zutela iritzirik turboa sartu eta hiperarin kantatzen hasi ziren seiak. "Arin eta ondo, usoak hegan" dio esatera zaharrak, baina sinetsi egiguzue arin eta ondo kantatu zutela, hori bai, jendartearen sorrarazi zituzten barre algarak ez ziren makalak izan. Saioaren ostean, Udalak dohaiarik eskaini zituen gazteak, txakolinak eta sagardoak erremate ezin egokiagoa eman zioten hemendik aurrera, eta okerrik ez bada, urtero-urtero egin daitezkeen jaialdiaren aurrekaria izan den bertso jaialdi eder honi. m



Goian, Unai, Igor, Jon eta Maialen Josuren azalpenari adierazten. Behean, Leioako jaialdiko sei bertsolariak, Xabier gidari dutela.



Iturria: XDZ

10ekotxikian Aitor Mendiluze

- 1) Txapelketa Nagusia martxan da eta laster Mendiluze oholzara. Zein asmorekin? Mendiluze izatea, haseratik bukaerara. Bestela ez du merezi oholzara igotzerik.
- 2) Gazte asko daude beterranoek utzitako hutsunea betetzeko. Lehia inoizko gogorrena izango al da aurtengo txapelketakoa? Lehia lehia da beti, eta ez dago beste lehiekon konparatzerik, bakoitzak bere momentua, protagonistak eta baldintzak dituelako. Oraingoa inoizko gogorrena izango den ez dakit, baina gogorra izango dela bai, eta eskerrak, tristea litzatekeelako hutsunea betetzeko lehian ez izatea.
- 3) Mutil zintzoa, argia, ikasle ona, bertsolari hobea... zerbait txarra izango duzu, ezta? Zenbaiten ustez fama ez beste guztia. Egia esan ez naiz tipo txarra, baina ez dut uste zerua irabazita daukadunik. Askotan jendeak uste baino aluagoa izaten badakit.
- 4) Bertsozotraman, baina bizitzan poto asko egin al ditu Aitorrek? Bizitzan nahi baino gehiago seguruenik, baina aparte garrantzia duenik ez. Alde horretatik nahiko zorte ona izan dut. Nigatik izan balitz, aldiro egingo nituzke.
- 5) Hiru bertsolariaren izenak behar ditugu: miresten duzun bertsolariarena, zure bertso lagunik gustukoena eta zure bertso aurkaririk gogorrena. Bertsolariak baino gehiago bertsoak miresten ditut, ez naiz mitomanoa. Neuri edonorekin aritzea gustatzen zait, aldatzea eta ezagutzea. Neure buruak beste inork baino gehiago beldurtzen nau oholza gainean.
- 6) Lehenengo behi eroak, gero gerra hotsa, orain antrax kontua... Aitorrek gai horiek umorez erantzuten die, ala beti serio hartzen ditu? Momentuan non, nola eta norekin nagoenaren arabera.
- 7) Arestian ezkondu izanak eraginik izan al du zure bertsolari bizitzan? Oraindik goiz da ondorioak ateratzeko, bi hilabete ere ez dira pasa eta.
- 8) Erraza al da bertsozotraman antolatzaile, kudeatzaile eta koordinatzaile lanak bertsolari lanarekin uztartzea? Erraza? Mekaniko, igeltsero, ingeniari edo eskultore lana bezala. Gauzak erlatibizatzen jakin behar da, banatzen, eta posible ez den kasuetan lehenetsunak errespetatzen.
- 9) Zer sentitzen duzu Uribe Kostara bertso kantura zatozenean? Adierazi bertso baten bidez, zeuk nahi duzun neurrian. Etxetik irten, autoa hartu / eta bidean noala, maiz pentsatu dut Uribe Kostak / beregan zerbait daukala. Saioak ondo antolatuak, / entzulego zerbitzala, sentiarazten nauena beti / lagun artean bezala, iristerako seguru dakit / ongi pasako dudala.
- 10) Eman aholkuren bat Algortako Bertsolari Eskolara bertsolari izateko asmoz hurbildu den bati. Bertsoarekin ondo pasatzen ikastea da bertsozotramaren lehena pausoa.

Bertsoglifikoa GALDERA



Etxahun Lekue Larrabetzuko bertsolari gaztea du. Bertsozotraman seguru, egoki eta dotore egin ez ezik, musika tresna bat jotzen ere badaki gure Etxahunek. Zein da musika tresna hori?

Ondoan erantzun bakarreko 4 galdera dituzu. Erantzun zuzenak eman ondoren, eraman zenbakien gaineko letrak beheko laukietara eta gure galdera orokorraren erantzuna irtengo zaizu.

1) Zein da Txapelketa Nagusiko azken laurdenetako lehen saioa hartu duen herria?

_____ 1 _____
 _____ 2 _____

2) Xabier Amurizak honela definitu zuen bertsozotramaren hitzaren nazionala. Zein hitz falta da?

_____ 3 _____

3) Nola zuen goitzen artistikoa Indalezio Bizkarrondo gipuzkoar bertsolari eta idazle erromantikoa?

_____ 4 _____ 5 _____

4) Manolo du izena. Estitxu du alaba. Ardo gorria bezain nafarra da. Nola du abizena?

_____ 6 _____ 7 _____

Etxahunek jotzen dakien musika tresna

00000000
 1 2 3 4 5 6 7
 (00000000 : 00000000)

Bertsoagenda

BERTSO IKUSKIZUNA

Azaroak 30, ostirala, 20:00etan, Aretako Andres Isasi Musika Eskolan **Ai Martin!** obra, **Iraulio Pantalone Banden** eskutik

Eneko Acero

Europako surf txapeldun berria

Hogeita lau urteko algortar surflari honek Europako txapelketa bigarren aldiz irabazi berri du. Mundu mailan ere lehiatzen ibili da eta etorkizunean titulu hori eskuratzea du helburu. Acero anaiak, Kepa, Iker eta Eneko, euskal surfaren ordezkari bilakatu dira Euskal Herrian eta mundu osoan zehar. Gazte honen ibilbide profesionala aski ezaguna zaigu, baina bere bizitzako beste alde batzuk oraindik ezagutzeko ditugu.

Testua: B&B / Argazkia: Mikel Martinez

—Nolakoa da Europako txapelduna?
—Neure burua oraingo edozein gazteren modukoa ikusten dut. Agian, oso urduria izan naiteke eta zenbait kasutan burugogorra. Azken honek baditu alde onak eta txarrak, beharbada burugogorra izateagatik saiatu izan naiz gauzak ondo egiten eta neurri batean behintzat, satisfakzio maila batera iritsi naiz.

—Baina satisfakzio horretara heltzeko surfak bere alde gogorra ere badu, ezta?
—Surfa gogorra da, batez ere tokatu zaidalako askotan bakarrik bidaiatzea. Bakarrik gaudenean dena izaten da zailagoa. Baina horrek ere gauza guztiek bezala baditu bere alde onak. Izan ere kultura, jende, ohitura... ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du.

—Etxetik kanpo hainbeste denbora egotea nola bizi duzu?
—Inoiz ez naiz atzerrian bizitzen egon urte

baten baino gehiago. Adibidez, hamalau urte nituelarik nire anaia nagusiarekin, Ikerrekin) kanpoan sei hilabete eman nituen. Normalean lehiaketak direla eta, hilabete batzuk kanpoan pasatzen ditut.

—Zaila da surfaz bizitzea?
—Egia esan zaila da, baina ni pribilegiatua sentitzen naiz. Izan ere, Europan ez dago jende askorik esan dezakeena surfetik ondo bizi daitekeela. Europan hamar lagun inguru baino ez gara izango surf egitetik bizi garenak, eta ni horrekin oso pozik nago.

—Baina noiz arte bizi daiteke surfetik?
—Normalean kirolari baten bizitza hogeita hamar urtera arte izaten da, baina gero eta gehiago luzatzen ari da. Zainduz gero gehiago irauteko aukera dago eta 35-36 urte arte surfeatzen aritu zaitezke. Gauzak horrela, nik ikusten dudanean tontorrera iristen naitzela, orduan erabakiak hartzeko momentua izango da. Baina fisikoki ondo bazaude mantendu zaitezke.

—Etorkizunera begira, erronkarik bai?
—Printzipioz, epe laburrera, denboraldia noiz bukatuko den zain nago, azken buelta hau luzeegia izan baita. Eta datozen urteetan mundialean zentratzeko asmoa daukat, ea emaitza onak lortzen ditudan! Orain hori da niretzat garrantzitsuen.

—Hainbeste bidaia egin ondoren Uribe Kostako hondartzak izango dituzu gogoan...
—Mundu osoko hondartzak ezagutu baditut ere, esan dezaket oso kostalde ona dugula olatuak hartzeko. Daukaten alderdi txar bakarra, agian izan daiteke hotz handiegia egiten duela.

—Uribe Kostan azken boladan nudismoarekin dagoen polemikaren berri ba ote du surfista batek?
—Bai, noski. Ondo iruditzen zait, bakoitzak bere gorputzarekin gura duena egiteko aukera izan behar duelako. Baina badago jende asko nudismoa gustuko ez duena eta alde daudenak bezala jende guztia errespetatu beharko litzateke.


—Gai “polemikoeekin” jarraituz... Euskal Selektzioa?
—Orain dagoenarekin oso triste nago. Nik eta nire anaiek bizi izan dugu Europa mailan Euskal Selektzioarekin konpetitzera joatea, oso garrantzitsua baitzen guretzat, baina orain gauza “arraro” batengatik eskegita geratu gara. Egoera txarra guretzat!

—Zerbait gehiago gehitu nahi zenuke amaitu baino lehen?
—Bai. Euskal Herriko surflari guztiei agur bero bat, bihotzez! m

“Pribilegiatua sentitzen naiz,
Europan hamar lagun inguru baino
ez gara izango surf egitetik bizi garenak. Ni horrekin
oso pozik nago”

pertsonala

Izena: Eneko Acero
Adina: 24 urte
Jaioterria: Bilbo (Algortan bizi da)
Zaletasunak: snowboarda, zinemara joatea eta lagunekin egotea.
Akatsik nabarmenena: oso burugogarra naiz.
Hautzaroko irudi bat: nire ama Durangokoa denez, inguruko mendiak gogoratzen ditut. Txikitan Kepa, Iker eta hirurok askotan joaten ginen aitarekin mendira.
Oraindik bete gabeko ametsa: mundu mailan emaitza hobeak lortzea.
Zure bizitzako olatua: Mundakak ditu onenetakoak.





gaizka escudero / villabotas-ekoa



itsaso arana / jolastoki-koa

Bentreska

entsalada Tuterako kukuluekin

Sukalde lanetan ibili behar badugu, bisitaren bat dugulako eta denboraz estu bagabiltza, hona egoera horretatik garaile ateratzeko errezeta erraz bat. Hasteko, kukuluak (kogolloak) lau zatitan moztu eta gurutze forman platerean jarri. Gainean, piper gorri erreak (edo pikillokoak), xerratan zatituak eta hegaluze bentreska puskak jarri. Bestetik, binagreta bat prestatuko dugu. Lehenengo tomateari haziak eta azala kenduko dizkiogu. Azala erraz kentzeko, ur berotan hiru bat segundotan sartu tomatea. Gero atera eta azala ia berez kentzen da. Tomate garbia zatitua, oliba olio, gatza, pipermin zuri apur bat, Dijon-eko mostaza, eta Jerez-eko ozipina barila batekin ondo nahastu eta entsaladaren gainetik bota. Amaitzeko, tipulatxo zati batzuk gehitu eta mahaira. Ondo geratuko zarete. ^m

osagaiak

kogollo bat • bonito bentreska • piper gorri erre • tomate bat • oliba olio
Dijo-eko mostaza • pipermin zuria • Jerez-eko ozipina • gatza • tipuleta



MIKEL MARTINEZ

Botila (III)

jakin behar den guztia

Lehenengo tapoiak eta kortxoak Antzina kristalezko tapoiak erabiltzen ziren eta botilaren ahora ondo estutzeko esmerilatzeak hautsak eta olio erabili behar izaten zen. Tapoi hauek golleteari soka batez lotuta egoten ziren. Hortaz, botila bakoitzak bera tapoi propioa izan behar zuen eta horregatik botilak ixtea garestia eta zaila izaten zen. Ondoren, egurrezko tapoiak erabiltzen has ziren, kristalezkoak baino malguagoak.

Azkenik kortxozko tapoiak egurrezkoa baztertu zuenean, ardoak bere ezaugarriak mantentzeko ontzi egokia lortu zen. Hala ere, ardoak, izaki biziduna denez, nahiz eta botila barruan egon aldatzen jarraitzen du.

Botila barruko prozesuak, erreduzioa Erreduzioa esaten zaio, airearekin kontaktu ezagatik botila barruan gertatzen diren ardoaren transformazio naturalei. Ardoa botilaratzen denean, kopuru gutxitan disolbatutako anhidrido karbonikoa eta oxigenoa du. Tapoia eta ardoaren arteko aire geldia laster xurgatzen du ardoak, horregatik asfisia egoera bat sortzen da eta bakterioek ugaltzeko daukaten ahalmena murrizten da. Gainera, kortxoak onak bada, eta botila leku freskoan badago, ardoaren zaporea eta usaina aldatzen duten mikroorganismoen jarduera motelagoa izaten da. ^m

Sarean ardo erosteko



Ehundaka web orrialdek eskaintzen digute ardoak erosteko aukera. Guri Zizur Nagusiko (Nafarroa) **Garnatxa** ardoaren deigarria iruditu zitzaigun. Eskaintza zabala egiteaz gain, euskarari ere bere lekutxo egin diote. www.garnatxa.com

Teapotinfusioak

Algortako erdigunean te dastaketarako txoko atsegina zabaldu du Sofia Bergaretxek. Bertan betiko edariez gain kontinente guztietako te eta infusioak dastatzeko aukera dago.

Testua: B&B / Argazkia: Mikel Martinez



Te on bat, buztinezko edo portzelanazko pitxerlean prestatu behar da, eta ez metalezkoan.

Gure herriak janari eta edariei dagokionez ohiturei eta trazioei oso atxikita jarraitzen du, joera berrien aurrean uzkur agertzen da. Hala ere, tearen kultura zirrikietatik sartu egin da, eta poliki-poliki gure artean bere tokia hartu du. Honen adibidea dugu Teapot dastaketarako taberna. Orain dela lau hilabete merkatu honetan jantzia den Sofia Bergaretxek Algortan txoko txiki hau iriki zuen. Jendea tearen mundu ezezagunean barneratzeko asmoarekin ilusio handiz zabaldu zuen jende askorentzako zapora berriak ezagutzeko toki hau.

Taberna izateaz gain te zein kafearen inguruan dauden hainbat tramankulu saltzen dira bertan: tea hartzeko katilu bereziak, kafea gordetzeko poteak baita eta kafe ale ehotuak ere. Izan ere, gaur egun oso zaila da denda eta tabernetan ezagutzen dugun te arrunta ez den zapora eta kalitate ezberdinen bat. Sofiak horri garrantzia ematen saiatu da, leku eta zapora askotako teak bildu eta gurera

hurbilduz, beti ere kalitate ezin hobea bermatuz. Esate baterako Turkia, Errusia, India, Afrika, Txina, Sir Lanka... lurraldeak ezagutzeko parada eskaintzen digu dauden hogeita hamar te moten bitartez. Sofiak urteen poderioz jaso duen jakintzari kasu eginez, te on bat prestatzeko neurri txiki bat hartu behar da: pitxerra metalezkoa ez da izan behar, portzelana edo buztinezkoa baizik. Neurri hau taberna gehienetan ez da kontuan hartzen. Agian horretan datza taberna arrunt eta Teapot tabernaren arteko ezberdintasuna eta modu berean te on eta txarraren aldea.


Ingalaterrako teari buruz barneratua dugun mitoa, esterotipatua askotan (tearen ordua bostak direla...), hausti beharrean gaude. Azken finean gure buruak ireki behar ditugu gure ahosabaia Sofia Bergaretxeren gomendioen bitartez tearen mundu berriari bidaia egiteko. ^m
TEAPOT: Basagoiti etorbidea, 57 (Algorta)
Ordutegia: egunero, igandeak barne: 9:30-14:00 / 16:15-22:00

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN




"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez penta"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixzarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15 48990

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

EZKER-ESKUIN:
1- Ez ar. 2- Fama. 3- Oinarritzko edaria. 4 Ahalegin handiz.
5 Airean adierazteko aurrizkia. 6- Requiescant in pace. 7- Modu.

GOTTIK BEHERA:
1- Letra bat. Unairen hasieran . Nota bat. 2- Gorria eta urdina nahastuz lortzen den kolorea. Kontsonantea. 3- Herri ezagutza biltzen duen esaldia. 4- Fosforoa. Gaixo. 5- Ale honetan UK-k gomendatzen duen infusioa. Hotz egiten duenean gustura hartzen salda.

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					

SOLUZIOAK
EZKERRETIK ESKUINERA: Eme, r, oospa, ura, nekez, aro, r, fip, era, a.
GOTTIK BEHERA: E, un, rc, more, r, esakera, p, en, r, zopa.

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Lan bila bazabiltza, zorionekoa zeu! Ez, ordea, bikote barik bazaude. Baina horri eusteko adiskideak inoiz baino hurbilago sentituko dituzu. Osasunez ondo ibili arren, zaindu ezazu zeure bihotz zauritua.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Oso alai zabilzala agerikoa da, baina aski ezaguna zaigu osasuna zein poltxikoa parrandarekin bar ez datozela. Hobe duzu etxean denbora gehiago igarotzea, zeure falta somatzen baita.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Azken boladan triste eta goibel zabilzta. Baina aspaldian ikusi ez duzun lagun baten bisitak asko poztuko zaitu. Berarekin ahaztuta dituzun tokiak eta pertsonak berrikusteko aukera izango duzu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Lan espartuari dagokionez, nagusiak zeure ahaleginak kolokan jarriko ditu, beraz kontu handiz ibili beharko duzu. Zeure bihotzak esaten dizunari jarraituz gero arrakasta itzelak jasoko dituzu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Osasuna eta dirua zeure alde dituzu, baina ez, ordea, lagunak. Badakizu zeure umorea eguraldia bezala aldakorra dela, eta liskar bat baino gehiago izan ditzakezu umorearen kontura.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Haize barriak behar dituzu, zeure herriatik kanpo mundu barri oso bat baituztu ezagutzeke. Beraz, badakizu: ez ezazu birritan pentsa, maleta prestatu eta bidaiatu! Hala ere, kontuz ibili: diruak zeure eskuetan gurtzi irauten du.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Aspaldian kezkatuta zaudzan arazo bat konpontzeko momentua iritsi zaizu, ez ezazu galdu aukera paregabe hau. Baliteke maitasun kontuetan espero zenuena ez gertatzea, baina honek ez zaitu tristetu behar.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Badakigu errutinan murgildurik bizitzea oso eroso dela, baina zu jadanik pasatu zara. Mugitu zaituz berandu izan baino lehenago. Bikoterik gabe bazaude ez kezkatu eze hilabete honetan ere ez duzu zure laranja erdia topatuko eta.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Udazkeneko eguraldiak zoraturiko zaitu, urduritasuna eta ezinegona izango dituzu zurekin. Hala ere, nahiko animoso egongo zara eta zenuen osasun arazo txiki horiek gainditzeko garai egokia izango da. Aste bukaeratarako plan berriak egin.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Bai ala ez? Beti zalantzan zabilzta eta horrekin min handia egiten ari zara zure inguruan. Utzi jolasteari eta hartuz behingoz erabakiak. Konpromisoari diotzun beldurra gainditu eta berandu izan baino lehen, maite duzun pertsonari gauzak argitu.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Lasaitasun apur bat gehiagorekin hartu beharko zenuke bizitza, estresa ez baita lagun ona eta yoga bezalako kirolak egiten hastea komeniko litzaizuke. Inguruko pertsonari arreta jarri, gutxi bada ere, eta konturatuko zara zeinen ahazturik dituzun.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Amodio kontutan gauzak okerrago joan ezin zirela uste zenuenean okerrera egin dutela ikusi duzu, baina lasai, denboralditxo bateko kontua da. Osasunez indartsuago sentituko zara eta horrek proiektu berriak martxan jartzeko bultzada suposatuko du.

Panel 1: osaba bivafego, osaba azeri, aditu! azkenean PEREZ sagutxoa ezagutuko dut!

Panel 2: ikusten? ...

Panel 3: ba... iloba.. orain badakizu zer egin behar duzun... utzi hagina almohada azpian...

Panel 4: ...eta gauean gure lagun karraskari txikia agertuko da...

Panel 5: (Character looking out window)

Panel 6: (Character looking out window)

Panel 7: (Character looking out window)

Panel 8: buaah! snif, snif

Panel 9: snif, PEREZ sagutxoak ez nau maite... hau utzi dit...
baina, baina... zer gertatzen da, iloba?
hara! 0,4 euro dira!!
bai modernoa!
BUKATU DA.

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

MUNGIA
oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA

[flash back]



Bitor Eguinolza

San Inazio eskola 1938 Goiko argazkia gaur egun Arkotxa kalea den tokian hartua dago. Atzean Rivas txaleta igeri daiteke, orduan izen horrekin zen ezaguna gaur eguneko udaletxearen alboan dagoen txalet gorri ederra. San Inazio eskola parean zegoen eta 80ko hamarkadara arte iraun zuen, gaur egun etxebizitzak daude bertan. San Inazio eskoletara Alango eta Neguri artean bizi ziren haurrak joaten ziren; Alangotik behera bizi zirenak, berriz, Algortako Zabala eskoletara joaten ziren. Argazkian maisu-maistrarik azaltzen ez bada ere, hauek ziren garai hartakoak: Esperanza Arexabala, Teresa Urkizu, Urbano eta Dionisio Aiarza, Paca Igartua eta Manuel Gainza (musikazkoa).

Golan zutunik: Carmen Yañez, Rosa Mari Conceiro, Bego Perez de Nanciarés, Mari Etxeandia, Mari Adelia Yañez, Mariasun Ormazabal, Jovita Yañez, Maritxu Yañez, Fideia Zarraga, Aurorita Mendez, Eduarne ?, Paulita Uriarte / **Zutunik:** Zapierain neba-arebak, Emma Collazos, Torrontegi, Juan Mari Etxeandia (GB), Miarxu Gómez (GB), Bego Urrutia (GB), Gertrudis Acedo, Bego Urrutia (GB), Juanito Alcazena, Pili Alcazena, Mari Carmen Manso, Vadillo neba-arebak / **Jesarrira:** Loli Conzario, Pedro Torrontegi (GB), Mari Carmen Mier, José Ignacio Etxeandia, Manolo Yañez, Jose Ignacio Yañez (GB), Celia Ruiz, Luci Ruiz, Gai neba-arebak, Ana Mari Bidegorri, Arginales Mendez, Rosa Mari Zubiaur, Manueta Perez de Nanciarés, / **Lurcan jesarrira:** Miguel Mier, Pedro Perez de Nanciarés, Rosa Mari Zubiaur, Alberto Mendez (GB), Itaki Zubiaur (GB).



abenduak
01
larunbata



Bar Puerto: Bazterreko ahotsak
Bingen Mendizabal
Mikel Urdangarin
Algorta Getxo Antzokian 22:30etan



babeslea



laguntzaileak

